



PRESTATZAILE FISIKOAREN KONTRATUA

----- (en), 20 (e)ko-----aren (e)(a)n, onakoak bilduta Alde batetik, ----- jauna/andrea, ----- izeneko klubaren lehendakaria, eta bestetik, ----- jauna/andrea, prestatzaile fisikoa, horixe egiaztatzen duen titulu ofizialaren jabea. Honakoek esku hartzen dute ----- jaunak/andreak, klubaren ordezkaria den aldetik, eta ----- jaunak/andreak, adinez nagusi eta -----NAN edo pasaporte zenbakidunak, bere izenean, eta zerbitzuak emateko kontratua egitea hitzartzen dute, beheko HITZARKIN ETA BALDINTZEN ARABERA.

1. ----- jaunak/andreak, ----- taldearen prestatzaile fisiko iharduteko konpromezua hartzen du ----- (2) izaeraz.
2. Prestatzaile fisikoa jokalarien prestakuntza fisikoaz arduratuko da, entrenatzailearen aginduei jarraiki.
3. Zerbitzuak behar bezala emateagatik, ----- prestatzaile fisikoak honako zenbateko hauek jasoko ditu.
 - a) Fitxa sari gisa, -----euro, -----ordainduta.
 - b) Hileko sari gisa, -----euro, mugaeguneraturiko hiletan ordainduta, hurrengo hileko lehen astearen barruan.
 - c) Prima gisa, etxean irabazitako partida bakoitzeko, -----euro, kanpoan irabazitako partidako, -----euro; etxean berdindutako partida bakoitzeko, -----euro; kanpoan berdindutako partida bakoitzeko, -----euro; partidaren amaieran edo hileko sariarekin batera ordainduta, klubak erabakitzen duen moduan.
 - d) -----
4. Klubak eta prestatzaile fisikoak, ados jarririk, kontratu hau hutsaldu ezean, prestatzailearen eginkizunak ezin izango dira inola ere eten, ezpada, berak egindako urratze larriengatik espedientea dela bitarte. Horrelakorik gertatuz gero, ordura arte sortutako lansariak, ez besterik, jasotzeko eskubidea izango du, eta, hala badagokio, aurretiaz jaso dituen zenbateko guztiak itzuli beharko ditu.

Klubak prestatzaile fisikoaren jarduna eteten badu, komeni zaiolako, kalte-ordaina ordaindu beharko dio, kontratuan ageri diren zenbateko guztiak ordainduta eta kontratuak ezarrita daukan iraupena kontuan hartuta. Nolanahi ere, kontratua indargabekotzat joko da, eta alde biak aske geratuko dira.
5. Bi aldeek hitz ematen dute nori dagokion Federazio eta Entrenatzaileen Batzordeari jakinaraziko diela prestatzaile fisikoaren egoeraren edo kontratu honetan hitzartu diren baldintzen aldaketa oro.
6. Kontratu honen indarraldia honakoa da: -----

(1) Malla eta profesionaria, zaletua, gaztea, ala bestelakorik den adieraziko dira.

(2) Profesionaria edo zaletua.

7. Honako kontratu hau bete eta ulertzearen gaineko zalantzak argitzearren, bi aldeak Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzorde egokien menera egongo dira, kontratugileen kategoriaren arabera (erregional edo lurraldekoa).

8. Beste baldintza batzuk:

Bi aldeak kontratu honen edukiarekin bat datozela egiaztatzeko, laukoizturik sinatu dute ondore bakarrerako, goian aipaturiko leku-egunetan.

KLUBAREN ORDEZKARIA

PRESTATZAILE FISIKOA

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA